

“Nagusi diren egiturak eta bizimoldeak oker daudela ikusi da berriro, modu oso konkretuan”

Joseba Sarrionandia Uribelarrea
Idazlea • 10-11



Zortzi asteko egutegia

normaltasun

"berri" baterako

Konfinamendua arintzeko prozesua faseka eta era asimetrikoan egingo dela azaldu du Espainiako gobernua. Asteburuan kirola egitera irten daiteke, eta horren ondoren lau faseko prozesu bat ipiniko da martxan. Pandemiaren bilakaera bide onetik badoa, arintze neurriek zortzi aste iraungo dute. • 4.



Durangaldean egoera berrira moldatu dituzte odol emateak

Durangaldea | Durangon Ezkurdira lekualdatu dute odola emateko gunea. Datozen egunetan Zaldibarren, Elorrion, Zornotzan, lurretan eta Abadiñon ere eman daiteke odola. • 8



Jaiak ospatzeko gogoz, etxetik parte hartzeko aukera izan dute Matienan eta Oromiñon

Durangaldea | Zer gertatuko da herri eta auzoetako jaiekin udan? Momentu zail honetan, jakin-mina sortzen duen gaietariko bat da. Oraingoz, konfinamenduan ere antolatu dute egitaraua Abadiñoko Traña-Matienan eta lurretako Oromiño auzoan. • 7



“Ondo eginda badaude, zaila da interneteko iruzurrez konturatzea, baita profesionalentzat ere”

Maristak ikastetxeko Lejarreta eta Ferreria irakasleek aholkuak eman dituzte seguru nabigatzeko



Iratxe Lejarreta eta Ricardo Ferreria
Maristak ikastetxean segurtasun informatikoa lantzen dute

Maristak Ikastetxeko Iratxe Lejarreta eta Ricardo Ferreria irakasleak zibersegurtasunean adituak dira. **ARTXIBOKO IRUDIA**

ZIBERSEGURTASUNA • J. DERTEANO

Konfinamendua ezarri zenetik, Interneteko kontsumoa asko hazi da eta hackerrak desiraten daude itsaso zabal eta nahasi horretan arrantzatzeko. Sarea baino gehiago, gurago dute euren gustuetara egokitutako amua erabili, horrela errazagoa delako iruzurra gauzatzea. Talde antolatutak dira.

Hackerrei itsasotik ozeanora pasatzeko aukera zabaldu zaie etxean konfinatuta gaudenetik?

Rikardo Ferreria: Hackerrak beti daude adi. Itsasoa lehengo bera dela esango nuke, baina orain arrain gehiago dituela. Ohiko teknika eta estrategiak gaur egungo egoerara egokitu dituzte; esaterako, osasun arloko gaietara. Adibidez, Txekiar

Errepublikan ospitale bateko sarea itxi egin behar izan zuten ziber-raso bategaitik. Interneten osasun arloko produktuak saltzen dituzten gune faltsuak ere ugaritu egin dira. Zentratu diren beste arlo bat aisialdiarena da: bideojokoak, ikus-entzuzko edukia duten plataformak... Adibidez, helbide elektronikoetara heldutako mezuen bitartez. Netfli-

xeko doako kontu bat eskaini eta jendeak klikatu egiten du.

Hackerrek bakarrik ala taldean lan egiten dute?

R.F.: Antolatutako taldeak izaten dira, informatikako hainbat sektoretan adituak eta esperientziadunak.

Kontsumitzaileen aldetik zibererasoei aurre egiteko heziketa falta da?

Iratxe Lejarreta: Orain arte jende askok ez zuen gustuko erosketak sarean egitea, baina orain, beharizanagaitik, horretan hasi da. Eta askok galduta ikusten dute euren burua. Ez dute teknologia berrien funtzionamendua ondo ulertzen edo ez dakite erreminta bat edo bestea zelan erabili.

Telelanagaz, internet bidezko batzarrek asko ugaritu dira. Norbanakoek ere erabiltzen dituzte senideekin edo lagunekin egoteko. Zer arrisku ditu teknologia horrek?

R.F.: Formatu horretan muturra sartzea ez da erraza. Normalean, kontrolatuta dute sarbidea. Baina ez da ahaztu behar, azken finean, pertsonen egindako programak dirrela eta euren sisteman akatsak izan ditzaketela. Esaterako, Zoom plataformagaz gertatu dena: oso ezaguna da, eta, berez, oso ondo funtzionatzen du, baina hackerrek ahulgune bat aurkitu zioten eta, saioetara sartzea lortu zuten, baimenik barik.

I.L.: Enpresako batzarretan, esaterako, informazioa eskuratu dezakete eta hori euren mesederako erabili.

R.F.: Edo batzarreko txat-ean esteka faltsuak ipini ditzakete, bertan klikatzera gonbidatuz.

I.L.: Bideokonferentzietan jendeak uste du inguru segurua dela, konfiantzazkoa, eta esteka lankideren batek bidaliko zuela. Horrela errazagoa da klikatzea.

Zer puntutaraino ezagutzen gaituzte hackerrek?

R.F.: Gure arrasto digitala ikertzen dute, askotariko erremintak erabiltuta. Gizarte-ingeniaritza garrantzi handiko arloa da gaur egun.

I.L.: Sare sozialak, besteak beste, informazio iturri baliotsuak dira eta biktimen profilak egiten dituzte. Ikertzen dute nor zaren, nora bidaiatu duzun, zer afizio dituzun...

Horrela, erabiltzaile bakoitzaren neurrira egindako mezuak bidali daitezke. Mezuak konfiantza eragiten badu, errazagoa da amua irenstea. Esaterako, lan bila dabilen norbaiti Linkedineko mezu bat heltzen bazaio, bertan klikatzea da normalena. Egia esanda, ondo eginda badaude, zaila da iruzurrez konturatzea, baita profesionalentzat ere.

Klik bat egitea nahikoa da iruzurrean sartzeko? Ala informazio gehiago behar dute?

R.F.: Normalean, klik bat baino gehiago behar dute: artxiboren bat deskargatzea, zerbait exekutatzeko... Iruzur kasuen %99an jendeak berak sartzen ditu datuak. Beste kontu bat da hackerrek zuk erabiltzen duzun plataforma bera hackeatzen badute. Kasu horretan ezin daiteke ezer egin.

“

Gure arrasto digitala ikertzen dute. Gizarte-ingeniaritza garrantzi handiko arloa da gaur egun”

Ricardo Ferreria

—

I.L.: Gomendio orokor modura, kontuetako gakoak noizerik noizera aldatzea komeni da eta gakoak ez daitezela izan sinpleak: tartekatuta letra larriak eta zenbakiak ere.

Iratxe, zu ikerketa bat egiten zabil-tza. Azalduguzu zertan datzan.

I.L.: Tesi bat egiten nabil heziketara bideratutako teknologien inguruan. Errekurtso digitaletan ahalegin handia egiten dugu irakasleen zein ikasleen jarduna errazteko. Beraz, gure esparruan, egunero erabiltzen ditugun teknologiek erabiltzaileen gaitasun inaktua neurtzea da helburua. Koronabirusaren ondorioz, guk ezarritako azpiegitura teknologikoa orain ari da fruituak ematen. Ondo funtzionatzen ari dela uste dugu, baina ez dugu sentsazioekin bakarrik geratu gura, datuekin baieztatu gura dugu.

Bost aholku segurtasuna bermatzeko: aplikazioak eguneratu, saioetatik beti irten...

1 Aplikazioak gune seguruetatik deskargatzea komeni da: *Play Store* edo *Apple Store*-etik. Beste mota bateko deskargen kasuan, begiratu aplikazioek zer baimen duten eta susmagarriak diren. Esaterako, linternen aplikazio batek zertarako behar du baimena SMS bat bidaltzeko?

2 Link bat heltzen zaizunean, ikertu iturria beretako den. Adibidez, PayPal-eko link bat heltzen bada, zabaldu Interneten esteka bat, sartu kontu ofizialera eta alderatu, berdina den ala ez ikusteko. Dударik izanez gero, linka baztertzea komeni da eta deskargak iturri ofizialetatik egitea.

3 Sistema guztiak eta aplikazioak eguneratuta edukitzea komeni da. Aplikazioak ez dira perfektuak, pertsonen egiten dituzte eta zuloak izan ditzakete. Hackerrak abilak dira horiek aurkitzen. Beraz, sistemak garatzen dituztenek zulo horiek estali eta aplikazioen eguneraketak ateratzen dituzte.

4 Edozein kontutan zabil-tzanean (Google, Facebook edo bestelako sare sozialak...) gogoratu beti saioak ixtea. Bestela, gure etxeko giltza kalean uztearen modukoa da. Ordenagailuan antibirusa ipini. Noizerik noizera gakoak aldatzea komeni da eta gako konplutuak jartzea letra larriekin eta zenbakiekin.

5 Sare pribatu birtualak erabiltzea interesgarria da. Hori erabilia, zure ordenagailutik irteten duen informazio guztia zifratuta egongo da. Hau da, sare publiko ez fidagarri batean zehar norbere edo erakunde bateko datuak modu seguru batean bidaiatzea bermatzen duen sistema da.

“Neurri asko beharko dira eta beren-beregi sorturikoak izango dira batzuk”

Eneko Sagardoy aktorea pozik agertu da kultur arloko joan den asteko greba digitalak edukitako oihartzunagaz

DURANGO • J.G. - A.M.

Konfinamenduak irauten duen bitartean, Eneko Sagardoy aktore durangarra buru-belarri dabil esku artean dituen lanak prestatzen. Atsedenerako tartea hartzen duela onartu arren, pozik dago duen lan kopuruagaz.

Greba digitala egin zenuten joan zen astean. Pozik oihartzunagaz?

Grebaren ekintza poetiko hau sinbolikoki garrantzitsua izan dela uste dut. Ekintza poetikoa diot fabrikak itxita dauzkagulako, eta, beraz, ezinezkoa zaigulako greba bere horretan egitea. Baina erakutsi dugu gure beharrianak anitzak izan arren eta babesten gaituzten mekanismoak desberdinak izan arren, oinarritzko gauza bitan bat egiten dugula: alde batetik, kultur-gintzan lan egiten dugula, eta horrek suposatzen du behin-behineko langileak garela asko. Bestetik, euskaraz lan egiten dugula, euskararen lurralde osoan. Bertako instituzio guztiei egindako deia izan da, eta hori, bere horretan, pauso garrantzitsutzat dugu.

Deialdiak 1.000 atxikimendutik gora jaso zituen. Batuta zaudete?

Oso errealtate desberdinak ditugu, eta zaila da lehentasunak markatzea. Ez da berdina bertsolari batek duen babes juridikoa, duen elkarte edo lan mota, edo arte plastikoko autonomo batek duena, edota aktore edo argi teknikari batek. Birus honeguz argi geratu da zer den premia: jende bat diru sarrerarik barik geratu da, ezingo du fakturarik ordaindu. Horixe da

lehenengo premia. Ofizioa bera modu desberdinetan ikusi dezakegu, baina argi dago momentu honetan zein den lehentasuna.

Eusko Jaurlaritzak 2,5 milioi euroko diru-laguntza bideratuko duela esan zuen. Nahikoa al da?


Argi dago ez dela nahikoa izango. Gainera, ez da aparte sorturiko diru-laguntza bat; kulturarako lehendik zegoen bat berbideratu dute. Hala ere, ikusten da borondatea, eta hori ere bada eskatzen duguna, jesartzea eta berba egitea. Badakigu ez dela erraza, mila kontu lotu behar dira eta ez dago soluzio

“**Errealitatera hurbiltzen ez diren instituzioek ez dute asmatuko zeintzuk diren laguntzak**”

magikorik, baina argi dago elkarri entzunda baino ez ditugula topatuko emaitzak. Bagabiltza zubiak eraikitzen, eta guztia beharko dugu. Errealitatera hurbiltzen ez diren instituzioek ez dute asmatuko zeintzuk diren beharrezko laguntzak. Zaila izango da asmatzea, baina neurri asko beharko dira eta hainbat beren-beregi sorturikoak izan beharko dira.

Badirudi kultura asko kontsumitzen ari dela itxialdian. Gogoetarako tartea zabalduko du grebak?

Esango nuke kontsumitzailea jakitun dela zelako garrantzia duen



LEHIOR ELORRIAGA

Eneko Sagardoy Mujika

Aktorea
Durango | 1994

kulturak. Ni, gainera, ez naiz irakurri ditudan mezu batzuen oso zalea. 'Hau guzti hau amaitzean bete egin behar ditugu antzokiak'. Kontsumitzaileak badaki antzokiek premia dutela, baina injustua ere iruditzen zait hein batean, herritarrek ere estu ibiliko direlako, gure moduan. Lehen ordaindu zezaketen sarrera beharbada ezingo dute ordaindu orain; beraz, horrelako mezuak neurtu egin beharko lirake. Ahal duenak etortzen jarraituko du. Hala ere, hausnarketa hau instituzioei bideratu diegu batez ere, ikusi dezatela kultura beharrezko elikagai lez biziraupenerako.

Profesionalki, zelan harrapatu zaitu honek?

Egia esan, lan pilo bategaz esku artean. Lehenengo kaltea, hilabete

“**Udan Parisera joatekoa nintzen, antzerki proiektu baterako; oraingoz ez da egingo**”

bian prestatzen egon garen *Ama Kuraia*; estreinatu baino bost egun lehenago, eszenografia Arriagan muntatuta zegoela geratu da. Udazkenean estreinatzea aurreikusten da, baina gutariko batzuk ezingo gara egon, beharbada. Egunero aldatzen dira gauzak egunotan, baina litekeena da ni ez egotea. Maiatzean, Jose Corralen pelikula

berriagaz hastekoa nintzen, Madrilen, baina ekain amaierara-edo atzeratuko dela aurreikusten da. Spanish Film Commission delakoa Espainiako gobernuagaz hitzarmena lantzen ari da, grabazioak zein neurri eta baldintzatan egingo diren erabakitzeke. Horren arabera, lehenago edo geroago egingo dugu. Bestalde, udan Parisera joatekoa nintzen, antzerki proiektu baterako. Oraingoz ez da egingo, ezta Donostian egitekoa nintzen musika eta antzerkia uztartzen dituen beste proiektua ere. Udazkeneko proiektuak besteen arabera izango dira. Egia esan, pozik nago, lana dudalako, eta datorren urterako ere badut lana. Dena dela, ohituta gaude egoera ezegonkorrean bizitzera.

eiriondo@leartik.eus 94 616 90 02

BATXILERGOA

**ATE IREKI
PERTSONALIZATUAK**

lea artibai
i k a s t e t x e a

ONLINE

Aurrematrikula datak:

ONLINE

MAIATZAREN

4tik 15era

PRESENTZIALA

MAIATZAREN

11tik 22ra

Zortzi asteko egutegi bat konfinamendu neurriak arindu eta "normaltasun berri" batera ailegatzeko


Espainiako gobernuak bina asteko iraupena duten lau fase ipiniko ditu martxan, konfinamendua atzean uzten joan eta eszenatoki berri batera heltzeko

DATUAK • EKAITZ HERRERA

Espainiako gobernuak maiatzaren 4an hasiko du konfinamendua arintzeko prozesua, eta dena ondo badoa, ekainaren amaierara arte izango du martxan. Bina asteko iraupena duten lau fase identifikatu ditu eta aktibitate ekonomiko zabaltzeko baldintzak zehaztu ditu atal bakoitzean. Pedro Sanchez Espainiako presidentek konfinamendua modu "asimetrikoan" arinduko dela berretsi zuen martitzenean, hau da, lurralde eta autonomia erkidego bakoitzaren osasun egoeraren arabera. Edizio hau interako, Hego Euskal Herriko agintariek zehaztu barik zituzten herrialde bakoitzean hartuko lituzketen neurriak. Edozelan ere, Espainiako gobernuak markatutakoa hartuko lukete oinarri modura, ezinbestean. Hauek dira faseak eta datak:

0. FASEA (Maiatzak 4)

Arreta indibiduala eta alde zureko hitzordua eskatzea ahalbidetzen duten lokalek atek zabaltzeko.



Terrazek maiatzaren 11ra arte itxaron beharko dute bezeroak hartzeko.

ditzakete. Federatutako kirolarien eta kirolari profesionalen entrenamenduak baimenduko dira.

1. FASEA (Maiatzak 11)

Komertzio txikiak zabaltzeko. Baita tabernetako terrazak ere, eta nekazaritzari eta arran-

Pandemiaren bilakaera bide onetik badoa, arintze neurriak zortzi aste iraungo dute

tzari lotutako industriak. Fedudunentzako guneek ere zabaltzeko atek. Terrazek eta tenpluek %30era arte mugatuko dute gehienezko bezero kopurua. Adinduentzat ordutegi berezi bat ipiniko dute, kolektiborik zaurgarriena delako.

2. FASEA (Maiatzak 25)

Ikastetxeek zabaltzeko aukera izango dute. Baita zinemek eta antzokiek ere. Gehienezko bezero kopurua %30era mugatuko da. Tabernetek eta hotelek euren barrualdeak zabaltzeko, horretarako hartu beharreko neurriak hartuta. Ezingo dira 50 lagun baino gehiago batu barruan. Ekitaldi kulturalak egin daitezke aire zabalean. Ezingo dira 400 lagun baino gehiago batu.

3. FASEA (Ekainak 8)

Komertzio handiak zabaltzeko, baimendutako gehienezko bezero kopurua erdira murriztuta. Herriarrek batetik bestera ibiltzeko aukera berreskuratuko dute, pertsonen arteko distantzia minimoa metro bikoia izango da, maskara erabiltzea gomendagarria izango da eta ostalaritzari lotutako neurri batzuk arinduko dituzte.

Kasu baieztatuak Durangaldean

Edizio hau interako, koronabirusa-gatik 378 kasu zeuden baieztatuta Durangaldean.



Aita-semeak Traña-Matienako kioskoan baloiagaz jolasean.

Umeen barreak eta olgetak Durangaldeko kaleetara bueltatu dira aste honetan

Umeen konfinamendua arindu egin da, apurtxo bat bada ere. Egunean ordubetean irten dezakete kalera, betiere segurtasun neurriak beteta eta nagusi batek lagunduta

UMEAK • EKAITZ HERRERA

Eta, halako batean, barre hots bat hemen, eta baloi kolpe bat han. Durangaldeko umeek kaleak hartu dituzte berriro, konfinamendua hasi eta hilabete eta erdi ingurura. Segurtasun neurriak zorrotz beteta irten dute etxetik, betiere etxe bereko nagusiren batek lagunduta. Esaterako, Unai Arrieta abadiñarrak semeagaz irten du egunotan Traña plaza-

ra. Konfinamendu egunak "uste baino hobeto" eraman dituztela esan du, baina aitortu du bazutela kalera irteteko gogoia. Aita-semeak baloi bati kolpeka aritu dira egunotan elkarrengatik olgetan, eta haien antzeko egoera ikusi da eskualdeko beste hainbat herritan ere. Familia askok askaria egin du kalean. Ume asko eta asko bizikletan eta patinetean ibili dira batetik bestera. Oraingoan, baina,

umeak ezin dira txin-txaunetan edo jolas eremuetan jolastu, Espainiako gobernuak debekatu egin zuen eta.

Txiki-ibilbideak Durangon

Durangoko Udalak 11 'Txiki-ibilbide' proposatu ditu herrian zehar ibiltzeko. Ibilbide horiek kilometro biko luzera dute gehienez, eta "20-30 bat minutuan" egin daitezke. Udalaren esanetan, ibilbide horiek Espainiako gobernuak ezarritako araudia bermatzen dute.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko apirilaren 30a
18. urtea - 805. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

"Uste dugu denok dugula etxe bat, baina ez da horrela; etxebakoak ikusezinak zaizkigu"

Josu Novo Sañudok (Bilbo, 1973) arreta psiko-soziala eskaintzen die Amankomunazgoak Behargintzan ipinitako aterpetxeko erabiltzaileei



BABESA • EKAITZ HERRERA

Konfinamenduak etxean egotera behartu arren, badira etxerik ez duten herritarrik. Batzuek Amankomunazgoak behin-behinean ipinitako aterpetxean hartu dute aterpe.

'Etxean gelditu' dioten mezuek ingururata gaude, baina etxerik ez duenak nekez egin dezake halakorik.

Etxebakoak ikusezinak dira edozein egoera gertatzen den aldiro,

baina haiekin batera bizi gara. Supermerkatuan ikusten ditugu, edo semaforo baten ondoan malabareak egiten. Beti daude hor, baina egunerokotasunean ez daukagu ia hartu-emanik eurekin, eta ez dugu pertsona horien bizimoduaren berri. Ezin da haien egoera orokortu, denerik dago eta. Aterpetxean, esaterako, badira batetik bestera sasoikako lanetan dabiltzanak. Egunekoa

irabaziz egunekoa bizitzen duten pertsonak dira, nomada lez batetik bestera dabiltzanak eta alarma egoerak hemen harrapatu dituenak. Ikusezinak zaizkigu, uste dugulako denok dugula etxe bat. Eta ez da horrela. Haiek egoera berri honetara egokitzen laguntzea da nire lana.

Etxebakoez ahaztu gara?

"Etxean gelditu" eta halako esloganak erabilia, haietaz ahaztu

gara. Horren aurrean, txalagarria da Amankomunazgoak arazoari emandako erantzuna. Teknikarien, Gurutze Gorriko kideen eta presidentearen kezkek eta inplikazioak erabatekoak izan dira. Eta azkar erantzun dute. Beharbada "etxean gelditu" eta halako esloganek etxebakoak ahaztuko zituzten, baina beste sektore batzuetatik babesla heldu da.

Konfinamendu egoera zama handiagoa da etxebakoentzat?

Dudarik barik. Pentsa: egoera honetan, familiagaz edo umeekin zaudela, badira kokoteraino amaitzen dituzun momentuak. Eztabaidak egon daitezke, tentsioa, eta normala da. Baina egoera horiek gatzagoak dira aterpetxea ezagutzen ez dituzun herritarrekin partekatzen duzunean. Aurreko batean gertatutakoa da horren adibide. Erabiltzaile batek pelikula bat proiektatzeari ekin zion, eta denen oniritziarik barik halakorik zergatik egin zuen galdetu zioten besteek. Halako gatazkak egoten dira. Gero, tabakoaren gaia dago. Batzuk erretzaileak dira, baina ez dute ez dirurik ez aukerarik tabakoa erosteko. Hori bereziki gogorra egiten zaie.

Zein tresna eskaintzen diezu laguntzeko?

Bizikidetzaren ondorioz sortzen diren gatazketan bitartekari lanak egitea da nire rola; horiek gutxitzea edo adostasunak bilatzen laguntzea. Bestalde, entzunan, ulertuak eta arretaz hartuak izan daitezten lan egiten dut. Hori funtsezkoa da. Aterpetxeko erabiltzaileei eta bertako langileei eskaintzen diet arreta.

Etxealdia amaitutakoan, zein bideri jarraitu beharko litzaioke etxebakoei dagokienez?

Gurutze Gorriak lana bilatzeko prestakuntzak eskaintzeari ekin dio. Aurreko batean, esaterako, erabiltzaileetarik batek Internet bidezko lan elkarrizketa bat egin zuen. Lan formakuntzarako bideak eskaini gura ditugu. Bestalde, konfinamenduaren osteko egoerarako ere prestatzen ditugu. Orain arte ezagutu dugun moduko "egoera normalera" bueltatzea gatz izango da eta hori ulertarazi gura diegu.

Bada esan gura duzun beste ezer?

Azpimarratu gura dut etxebakoak ez daudela uste dugun bezain urrutiri. Egoera hau pasatutakoan, baliteke hainbat herritar haien antzeko egoeraren batean izatea. Gutariko edonork izan dezake bolada txar bat edo egoera ekonomiko zail bat. Horrela daude haiek ere. Ez dira beste planeta batekoak.

Etxebakoei lan mundura sartzeko baliabideak eskaintzeari ekin dio Amankomunazgoak

Gizarte zerbitzuetako kideek eta Behargintzako teknikariek lana lortzeko bidean lagundu gura diete

ENPLEGUA • EKAITZ HERRERA

Eta alarma egoera amaitutakoan, zer? Bada, galdera horri erantzuteari ekin dio Amankomunazgoak. Konfinamendu egun hauek aprobetxatu gura dituzte aterpetxean dauden erabiltzaileei erraztasunak eskaintzeko enplegua lortzeko. "Eurekin berba egiten ari gara. Zein lan esperientzia duten jakin gura dugu, zein interes dituzten; hartara, haiei curriculuma lantzen lagundu eta erraztasunak eskaini enplegua lortzeko", azaldu du Mireia Elko-

roiribe presidentea. Horretarako, Amankomunazgoaren gizarte zerbitzuetako teknikariak eta Behargintzako lantaldea elkarregaz ari dira koordinatzen. Elkoroiribek aurreratu du, gainera, etorkizunean sail bien arteko proiektu gehiago etorriko direla.

Amankomunazgoak eta Gurutze Gorriak martxoaren 17an egokitu zuten etxebakoentzako behin-behineko aterpetxea, Behargintzan. Zerbitzuak 36 bat herritarri lagundu die dagoeneko.



Gurutze Gorriak eta Amankomunazgoak behin-behineko aterpetxea ipini dute Behargintza dagoen eraikinean.



Hainbat lagunek mozorrotuta ospatu zituzten San Markoak.



Matienan, balkoiak izan dira San Prudentzioetako protagonistak.

Festarako grina salbuespen egoerara moldatu behar izan dute jaietarako Matienan eta Oromiñon

Modu berezian izan bada ere, Iurretako Oromiño auzoan ospatu dituzte San Markoak; Abadiñoako Traña-Matienan astelehenean hasi zituzten San Prudentzio jaiak, eta maiatzaren 10era arte iraungo dute prestatu duten egitarauaren arabera.

ABADIÑO/IURRETA • A.M.

Koronabirusak hankaz gora ipini du panorama, alde guztietatik. Eragin-dako osasun krisia eta krisi ekonomikoa ahaztu barik, ospakizunak ahal diren heinean disfrutatzen jarraitu gura dute herritarrek. Horren adibide dira herrietako jaiak. Baldintzatuta geratu diren arren, agintari zein herritarrek jaiak ospatzeko asmoa agertu dute nonahi.

Neurri berriak heltzen diren bitartean, herritarrek ahal den moduan ospatzen dabilta jaiak, Gasteizko San Prudentzioak, esate baterako.

Abadiñoako Traña-Matienan auzoan egun bereziak izaten ari dira eta pandemia sasoi honetan ere igartzen da festa giroa. Osasun alerta egoerak guztiz baldintzatuta, auzotarrek imajinazioa erabili behar izan dute, inoiz baino gehiago,

jaiak ospatzeko. Horrela, Donien Atxa jaietako betiko lekuan agertu zen astelehenean. Batez ere, auzoko balkoietara begiratuta igartzen da jaietan daudela, zapiz eta apaingarritz beteta daude eta; horietarik asko Abadiñoako institutuko IGEarenak dira. Txupina jaurti eta gero, abadiñarrak bete-betean murgildu dira San Prudentzio berezi hauetan. Udalak herritarren jai-propo-

samenak jasotzeko bidea zabaldu zuen, eta, proposamen horietatik aparte ere, makina bat lagunak ipini diete gatza eta piperra jaietara, batez ere musikariek eta musika-jartzailerek euren balkoietatik. Denen artean, maiatzaren 10era arteko egitaraua antolatu dute. Besteak beste, zapatuan Mozorro Egunari eutsiko diote, eta udalak argazkiak bidaltzeko deia egin du. Arratsaldean *Ametsetan Hegaz* erromeria egingo dute, eta gauean Danny Meipek zuzeneko kontzertua eskainiko du sare sozialen bitartez.

Auzotarren bilgune

Abadiñoan ez ezik, Iurretan ere ospatu dituzte jaiak, Oromiñon, hain zuzen ere. Asko izan dira balkoi eta atarrietan Donien Atxa ipini duten bizilagunak San Markoak ospatzeko. Horrez gainera, etxe askotan bakailao errea jan dute, ohiturari eutsiz. Hain zuzen ere, horixe izan da jai batzordearen helburua aurtengo jaietan: ekitaldirik tipikoenei eustea. Auzotar askok parte hartu dute ospakizunetan, eta antolatzailerak pozik agertu dira haien erantzunagaz. Horrela, alerta egoerak baldintzatuta izan bada ere, Oromiñoako San Markoetan ez dute hutsik egin bertso saioak (koplen bitartez), mozorroek, Umeen Egunak, eta tortilla eta briska txapelketek.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Zergaitik erabaki zenuen ziklo hau ikastea? Eta zergaitik MGEP-en?
Betidanik gustatu izan zaizkit makinak eta instalakuntzak, eta ziklo honek makinak instalatzen, martxan jartzen, programatzen eta mantentzen ikasteko aukera ematen zidan. Nire ustez, MGEP da instalazio eta balibiderik onenak dituen eskola; horregaitik aukeratu nuen.

Eta orain ikasten ari zarela, zein da zure iritzia?
Baliabideez gainera, irakaslerik gehienak oso onak dira. Igartzen da gustuko dutela irakastea, eta laguntzeko prest daude beti. Beraz, oso ondo moldatu naiz ikasten. Ikaskideekin ere oso hartu-eman ona izaten ari naiz, gelakide asko orain lagun bilakatu dira. Erabiltzen dugun metodologia ere aipatu gura nuke. Taldeetan banandurik, klaseetan ikasitako teoria praktikara eramateko erronkak egin ditugu ikasgai guztietan. Erronka hauekin asko ikasi dugu eta hori nabarmenduko nuke bereziki.

Aurten atzerrira joateko aukera izan duzu, ERASMUS+ programagaz. Zelakoa izaten ari da zure esperientzia?
Martxoaren 11n Pragara (Txekiako Errepublika) etorri nintzen. Hasieran, nire lankidea eta biok lantoki ondoko etxe batean bizi ginen, baina Espainiatik etorrita eta Europar COVID-19aren inguruko neurriak hartu berri zirela-eta, erresidentzia edo aterpe batera joan ginen berrogeialdia pasatzera, arduradunak eskatuta. Han geundela, egoera asko gaiztotu zen eta pertsona askok etxera bueltatzea erabaki zuten, tartean nire lankideak.

Nik gurago izan nuen hemen geratu eta esperientzia hau bizi. Orain, berrogeialdia pasatuta, berriro lehenengo etxean bizi naiz, bakarrik. Eta dagoeneko hasi naiz lanean. Nire enpresaren izena Valent CMMS da. Enpresa txiki bat da. Industriadako mantentze-lanak egiten ditu. Bere merkatua Txekiako Errepublikako lantegiak dira, batez ere auto-fabrikak, petrokimikoak, e.a. Nik neurketa lanak egiten ditut, makinaren efizientzia neurtzeko.

Lan garrantzitsua da, ondoren makinak zuzendu behar direlako. Lan honetan, zikloan ikasitakoa erabili dut, batez ere errodamentuei, transmisio elementuei, materialei eta tolerantziei buruzko jakintzak.

Zer ikasi duzu enpresan?
Lana ahalik eta hoberen egiten eta ahal dudana guztian lankideei laguntzen ikasi dut, oso garrantzitsua baita lan efizientea egiteko.

Gaur egun duzun esperientziak zer ekarpen egin dizu pertsona lez?
Pertsonalki, neure kabuz bizitzen ikasi dut. Eta etorkizunerako lanerako makinaren funtzionamendua perfektionatzen ere ikasi dut.

Orain duzun ikuspuntuagaz, zein asmo duzu hurrengo ikasturterako?
Gehiago ikasteko asmoa dut, baina gogo handia dut lanean hasteko ere; beraz, ziur aski goi mailako beste ikasketaren bat egingo dut. Automatizazio eta robotikako zikloa egitea dut buruan, eta lehenengo ikasturtearen amaieran DUALean hastea.

COVID-19 gaixotasunak bete-betean harrapatu zaitu. Zer moduz daramazu?
Hemen oso ondo gaude. Tabernak, gimnasioak eta beste leku batzuk itxita dauden arren, baditut beste modu batzuk ondo pasatzeko; adibidez, bizikletan ibiltzen naiz. Lehenengo egunak txarragoak izan ziren, batez ere erresidentzian bananduta pasatu behar izan nintuen asteak, baina banekien behin hori igarotakoan lanean hasi ahalko nintzela. Beraz, denbora ahalik eta ondoen pasatzen ahalegindu nintzen. Orain oso ondo nago.

Julen Zengotita Basauri, Elorrio.
Mekatronika Industrial Goi Mailako Heziketa zikloan 2. maila egiten ari da.

Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh • onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Osasunaz haratago doan krisia dela erakusteko asmoz, Gazte Asanbladak eskubide urraketen testigantzak jasoko ditu Otxandion

Gizarteko bestelako esparruetan jasandako urraketak kontatzeko bidea zabaldu diete Otxandioko herritarrei



Beste hainbat herritako gaztetxeetan ere martxan ipini dute ekimena.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Gazte Asanbladako kideek uste dute COVID-19 birusak sakonean dagoen eredu krisi bat areagotu eta begi-bistakoago egin duela, eta, gaurko egoeratik abiatuta, ekimen bat martxan ipini dute gaia gizarteratzeko zein kontzientziazioan eragiteko. Gizarteko esparru anitzetan gertatzen diren eskubide urraketak jaso gura dituzte, eta helbide elektronikoko bat bideratu dute gura dutenek euren testigantza bidali dezaten: otxandio-kogaztetxea@gmail.com.

Azken batean, gaur egungo egoera "osasun krisiaz haratago" doan arazoa dela uste dute Otxandioko Gazte Asanbladako kideek, eta "ertz askotatik" aztertu beharreko gaia dela. "Horrela, badira lanik

barik gelditu eta alokairuak ordaintzeko gaitasunik ez duten familiak, etxean jasaten duten indarkeria matxistatik ihes egiteko aukerarik barik geratu diren emakumeak edo beharrezkoa den babeserako materialik barik lanera joan behar diren langileak", arrazoitu dute sare sozialetan publiko egindako testu batean.

Otxandio ez da "salbuespena"

Egoera baloratuta, beste hainbat herritako gaztetxeetan martxan ipinitako ekimenagaz bat egin eta dinamika Otxandiora zabaldu dute. Izan ere, eskubide urraketetan Otxandio ez dela "salbuespena" azaldu dute. "Hemen ere egoera honen lehenengo ondorioak ikusi daitezke hainbat esparrutan, bai salbuespen egoerarenak, bai krisi ekonomikoarenak", diote.

Testigantzak jaso eta gero, euren zer egin pentsatuko dute. Helburua gizartean eztabaida eragitea denez, testigantza batzuk modu batean edo bestean publiko egitea izan daiteke aukeratariko bat.

Odol premiari erantzuteko, Durangaldean egoera berrira moldatu dituzte odol emateak

Mugarra odol emaileen elkarteko Ondiz Bilbaoren berbetan, "hiru hilean behin odola ematera joatea ohitura bihurtzea dugu helburu, horrela bizi osorako odol emailea izango dugulako"

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Koronabirusaren eraginez ezarritako osasun alarmak ezinbestean eragin du jendearen bizitzan eta eguneroko ohituretan. Egoera berrira moldatu behar izan dute arlo askotan, eta odol emateak ere osasun eta segurtasun neurri guztiak bermatuta egiten dira. Ospitaleetan, aurretiaz programatutako kontsulta eta ebakuntzak bertan behera utzi edo atzeratu dituzten arren, odol premia berdina da, eta odol emaileen elkarteek eta transfusio zentroek odola jasotzen jarraitzen dute. Gaixo kronikoak daude, lehengo moduan, eta ezinbestean egin beharreko ebakuntzak egiten jarraitzen dute. Halaxe gogoratu du Ondiz Bilbaok, Mugarra odol emaileen elkarteko kideak.


Koronabirusa egonda ere, herritarrek odola ematera joan dira. "Bizi dugun egoera kontuan izanda, itxaroten genuen baino hobeto joan dira odol emateak. Ez zegoen argi zelan eragingo zuen egoerak odol emateetan, baina herritarren eran-

Sarean ordua aurretiaz hartzeko aukera zabaldu dute Durangon, ilaran itxaroten ez egoteko

tzuna positiboa izan da", Bilbaoren berbetan. Hala ere, herri txikietan odol emateak jaitsi egin direla onartu du. Segurtasun neurri guztiak bermatuta egiten dira odol emateak. "Lekua desinfektatuta dago, EPIak

erabiltzen dituzte, segurtasun distantziak betetzen dira..." Bilbaok argitu duenez. Era berean, ilaran itxaroten egotea ekiditeko, sarean ordua aurretiaz hartzeko aukera zabaldu dute Durangon. Durangoko herritar baten ekimenari eskerrak zabaldu dute bide hori, Durangoko Udalagaz eta Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteagaz koordinatuta. Sare sozialen bitartez, astero zabalduko duten galdetegi bat bete behar da. ANBOToren webgunean sartuta ere bete daiteke galdetegia.

Bestalde, ohiko odol emaileek abisua jasotzen dute odola ematera joan behar dutenean, orain arteko moduan. Durangaldean 480 bat odol emaile finko daude une honetan. Horiatariko bat da Bilbao, eta odola emateak duen garrantzia nabar-



Mugarra Odol Emaileen elkarteko Ondiz Bilbaok odola ematearen garrantzia nabarmendu du.

mendu du: "Bost minutuan odola emanda, bizi bat salbatu dezakegu. Ospitaleratutakoek bizirik irauteko aukera dute". Gaineratu duenez, "hiru hilean behin odola ematera joatea ohitura bihurtzea lortu gura dugu, bizi osorako odol emaile bat

izango dugulako". Durangon, Ezkurdin eman daiteke odola, eguenero; datozen egunetan, Zaldibarren (apirilak 30), Elorrion (maiatzak 6), Zornotzan (maiatzak 7), Iurretan (maiatzak 12) eta Abadiñon (maiatzak 13) ere eman daiteke.

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etortri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



LAGUNTZA SAREAK DURANGALDEAN BEHARRIZANA DUTENENTZAT



ABADIÑO

Abadiñoako gazteen boluntario sarea:
655 712 433 eta **662 586 190**
10:00etatik 14:00etara hartuko dituzte eskariak

Boluntario sarean izena emateko:
685 709 347

Abadiñoako Udalaren laguntza sarearen telefono zenbakiak:
94 466 94 30 eta **688 679 414**

ATXONDO

Boluntario aritu gura dutenek izena emateko:
608 321 901 eta **685 713 187**

BERRIZ

Oinarrizko erosketak egiteko zailtasunak dituztenentzako telefono zenbakia: **685 752 311**

PSIKOLOGIA-LAGUNTZA telefonoz (10:00 - 12:00 / 17:00 - 19:00)

636 189 449 (nerabeak, helduak eta adinekoak)
645 732 388 (bikotekideak)
617 319 714 (haurrak eta adinekoak)

DURANGO

Boluntario taldeak auzoka antolatu dituzte:
638 102 424
durangoauzolana@gmail.com

ELORRIO

Laguntza behar duten pertsonek Elorrioko Udaltzainen bulegora edo **946 820 218** telefono zenbakira deitu, 12:00ak baino lehen

IURRETA

Laguntza behar duten herritarrentzako telefono zenbakiak:

ASTELEHENETIK - BARIKURA

10:00 - 14:00: **679 237 129 / 644 306 355**
16:00 - 20:00: **617 144 737 / 618 683 087**

ZAPATU-DOMEKETAN

10:00 - 14:00: **679 237 129 / 644 306 355**
Herritarren sarean boluntario izateko: **666 101 373**

MAÑARIA

Beharizana dutenentzako telefono zenbakiak:
94 681 89 98 / 654 653 176

OTXANDIO

Otxandioko elkartasun sarearen telefono zenbakia beharizana dutenentzatz zein boluntario izan gura dutenentzatz: **648 023 531**

ZALDIBAR

Zaldibarko gazteen telefono zenbakia:
660 341 642

ZORNOTZA

Zornotzako Udalaren eta Gurutze Gorriaren sarea:
Boluntario izateko: voluntariadobizkaia@cuzroja.es edo
Herritarren Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez

Zornotzako gazte taldearen laguntza sarea:
elkartasuna.zornotza@gmail.com
641 873 166

“Desjabetuok ikasi beharko dugu noizbait elkartzeko eta elkartasunez benetako aldaketak planteatzeko”

Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak 70-80ko hamarkadez, konfinamenduaz eta gaur egungo egoeraz gogoeta egin du ANBOTOn egindako elkarrizketan

IURRETA • JONE GUENETXEA

80ko hamarkadan Ibaizabal aldizkaria sortu zuten Durangon. Joseba Sarrionandia Uribelarrea (Iurreta, 1958) egitasmo horren bultzatzaileetarikoa izan zen. Iurretako idazleak sasoi hartaz, gaur egungoaz eta etorkizunaz gogoeta egin du. Itsasoaren beste aldean, konfinamenduan idazten dihardu. Proiektu berria udarako amaitu dezake.

Zelan sortu zenuten Ibaizabal aldizkaria 1979an?

Ordura arte frankismoak kontrolatu zuen prentsa, beste guztia debekatu; orduan, bestelako medio handi batzuk hasi ziren sortzen, El Pais-eta. Fanzine kontrakulturalak ere ugaltu ziren, euskaraz ere bai. Durangon, Ibaizabal sortu genuen, herri komunikabidea, euskara eta bertako kultura erreperatzeko.

Nire ideologia kontrakulturala zen gehiago, baina frankismoak deseginda utzi zuen dena, eta imajinatu, euskal ortografia ere egiteko zegoen. Informazio eta kultura elementala eraiki behar zen, kontrakultura egin ahal izateko.

Zein giro bizi zenuten sasoi hartan Durangon?

Giro politiko antifrankista apur bat komikoa zen 1976an, ze era guztietako partiduak zeuden: ilegalak, hiru edo lau maoista, bi edo hiru troskista, pare bat eurokomunista, ELA ere eladioak eta sindikalistak zatituta; ez dakit, bakoitza alderdi batekoa zen. Ni autonomia nintzen; orain argitaratu da Nanni Ballestriniren *Dena nahi dugu*, ba hari horretakoa. Titulua ondo da-

go, e? Dena gura genuen-eta. Nire ustez, Goienkalen-eta zer eztabai- datu izateko ginen elezeerrekoa edo laiakoa. Poteoko ardoa ere horretarako zen, konbertsazioak izateko.

Politika frankismoa desegiten eta demokraziaren moduko zerbait eraikitzen ari zela ematen zuen, baina oso nekez eta oso oker. Guardia Zibila kontrolak ipintzen nahinon, Durangoko alkate frankista Diputazioko presidente, alkate berria PNVko betiko militante antifrankista, *Guerrilleros de Cristo Rey* haiek palizak ematen jai horretan edo besteren batean; bat-batean heroina ere zabaldu zen, eta, ez dakit. Indar errepresiboen disoluzioa gura genuen eta uste dut eurek lortu zutela gure helburu politikoak desegitea.

Errepublikanoak monarkia-gaz konformatu ziren, sozialistak kapitalismoagaz, euskaldun independentistak Nafarroarik bako autonomia eskas bategaz.

Giro kulturala ere hain antzua zen?

Giro politikoa ez nuke esango antzua zenik. Goienkaleko eztabaidena-eta broman da, alderdikeria hura pintoreskoa zen, baina ona; poteoa lez, sozializazio sistema bat zen. Bazeuden lelokeria batzuk, baina bazegoen elkartasun antifrankista bat. Kontua da botere faktikoak beste nonbait zudelara; ez zeuden Durangaldean. Ez dakit Madrilen, Washingtonen edo non, eta gero kontrolatu zuten bilakaera politikoa. Gauza batzuk aldatu zituzten, gauza nagusiak aldatu ez zitezten, eta kito.

Giro kulturala oso zabala zen, batez ere jakingura handikoa, eta hor partidu guztietakoak batzen ziren, eta helburuak argiagoak ziren: pertsonaren askatasuna, euskararen erreperazioa, memoria historikoa, munduko artea...

“**Nagusi diren egiturak eta bizimoldeak oker daudela ikusi da berriro, modu oso konkretuan**”

Imajinatzen dut botere faktikoak pentsatzen zutela abestiak, euskarazko klaseak, fanzineak, pelikulak, Gero taldearen antzerkia, Gerediagak antolatzen zuen

Liburu eta Disko Azoka, azken batean txorrada batzuk zirela. 'Galdutako denbora txorradetan', pentsatuko zuten. Gauza handiak kontrolatzea interesatzen zitzaieken: Guardia Zibila eta armada, erregea, bankuak eta enpresa handiak, sistema judiziala...

Gura zutena lortu zuten. Hor daukagu nagusi oraindino euren antzinako España monarkiko kapitalista erraldoi hori. Gu eta espainolen gehiengoa nahitaez presa zikin horretan harrapatuta.


Zelan antolatu zineten Ibaizabal aurrrera ateratzeko?

Ba, lokalik barik, dirurik barik eta ezer barik. Goienkalen elkartuta egiten genituen gauzak. Hasieran, Jesus Mari Eguidazuk eta biok koordinatu genuela uste dut. Artikuluak epean bildu, eta inprenta merke bat topatu genuen Usurbilen. Anuntzioen bila Humberto

Amantegi ibiltzen zen, oker ez banago. Gero, banatu egin behar zen. Juan Luis Isasi ibili zen horretan, eta beste batzuk ere bai.

Gaur egun posible izango litzateke horrelako aldizkari bat kaleratzea?

Ezin dizut ondo erantzun, ze nik ez dut EITB-rik ezagutu, ez Ertzaintzarik, ez halako prentsa lokalik. Imajinatzen dut beste era batean egiten direla orain gauzak, eta beste ikuspegi batzuk daudela. Sasoi hartan, gauza interesgarri guztiak debekutik zetozen: sexutik ezkataturik ibili behar zen, euskara menditarren atrasoa zen, klase borroka komunisten inbentoa, eta zer esan historia hereje eta bombardaketaren memoriaz, letrak umorez nahastea ere ineditoa zen eta. Edozer zen *undeground* eta, zoritxarraren bentajagaz, debekatuaren prestigioa zuen.



GEREDIAGA ELKARTEA



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria


PPS: 145-13

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hasia espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

{ Muruetorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

IRAKURKETA KLUBAK
HAUR ETA GAZTEENTZAT ONLINE

Iurreta
Elezateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA



APIRILAK 30
PAPEREZKO HEGOAK

17:00 L.H 3. maila
18:00 L.H 4. maila
"Hodeietan / Txabo Arnal"
(Txomin Magdalena)

PARTE HARTZEKO: biblioteka@iurreta.eus

Gaiok normalizatu ahala, jakinaren gainekoak egin dira. Jendea normalitatean aspertzen da, edo alpertzen da behintzat. Eta gaur egungo aldizkariak profesionalak dira, eta askoz gehiago dira, baina modu indolenteagoan leiduko dira beharbada. Uste dut 60ko hamarkadan Bittor Kapanagak, Peli Landaburuk, Jose Luis Lizundiak, Uri Ruizek eta enparauk egindako lanetik, eta 70eko hamarkadan guk lurra mugitzeko hasierako lan batzuetatik etorri direla ANBOTO, Berria edo EITB; gaur egun normalizat hartzen diren medio kulturalak.

“**Jose Marigaz sentitzen dut pertsona on bategaz batera Durangaldeko historiaren artxibo bat desagertu dela**”

Edozein gauza eraikitzeke, behekoek lan asko egin behar izaten dute. Eta guk Estatuaren kontra egin behar izan genuen oso zuzenean. Baina ezin da pentsatu euskal medioak korrontearen alde eta eroso ibili daitezkeenik; subalternoek ez dituzte izaten halako bentajak.

Proiektu horretan zure lagun batek parte hartu zuen, Jose Mari Uriartek. Zoritxarrez, orain gutxi hil da. Zelan gogoratzen duzu Jose Mari?

Jose Mari Uriarte oso pertsona ona zen, beti zeozer egiten, jakin-min ez, eta prest edozein lanetarako. Club Juvenilean ezagutu nuen, Servisa gainean, eta gero Gerediagan eta zeregin guztietan. Ez dut uste alderdi batekoa zenik, ez zitzaizkion espekulazio ideologikoak interesatzen, gehienak baino pragmatikoagoa zen. Historia ikertzea gustatzen zitzaion eta, serio eta lagunkoi, kausa on guztien alde ibiltzen zen. Ibaizabalen hasierako zenbakietan sail bat idazten zuela uste dut, hilabeteko efemeridean-
edo.

Ni joan nintzenez, 80ko udazkenean, uste dut berak hartu zuela

Ibaizabal argitaratzeko ardura, eta beste zenbaki batzuk atera zituztela. Ikerketa historikoetan, Pedro Pablo Astarloaren biografia bat egin zuela uste dut, eta Durangaldeko argazki historikoen bilduma. *Kolosala izango da* nobelarako argazki bat eskatu nion, eta berak eman zidan portada. Esaten da agure bat hiltzea Afrikan hamaika biblioteka suntsitzea dela. Jose Marigaz antzekoa sentitzen dut, pertsona on bategaz batera Durangaldeko historiaren artxibo bat desagertu dela.

Euskal Herrian suertea genuen, herri guztietan zegoelako halako jende eskuzabala, herri zentzuagaz, boluntario ekiteko prest. Iurretako dantzarien ingurua, Mataderoko kuadrilla, San Faustokoa... izen-abizenak esaten hasiko nintzateke denentzako beste memoria banu, eta, batez ere, haiek anonimatoa gurago ez balute.


Krisi honek gogor kolpatu du kultur-gintza. Euskal sortzaileek egun biko greba digitalera deitu dute. Bat egiten duzu aldarrikapen horiekin?

Egunotan ez naiz Interneten sartu, eta ez dakit ezer esaten duzunaz. Baina seguru arrazoia dutela prekaritateaz protestaka badabilta. Euskal sistema ahula da, subalternoa, eta sortzaileak, ba, imajinatu! Sistema ekonomiko kulturalan, sortzaileak azken gonbidatuak dira mundu guztian.

Une honetan, zein egoera bizi duzue hor koronabirusaren inguruan?

Etxean nago eta, munduari begiratzuz gero, Kuban irla batean gaudela ematen du, desastre itsasoz inguratuta. Zenbakiengaitik diot, kutsatuen eta hildakoen kopuruak eta ehunekoak ikusita: Euskal Herrian 18.027 kasu positibo eta 1.527 hildako daude momentu honetan, eta Kuban 1.189 gaixorik eta 40 hildako, Euskal Herria Kuba baino lau bider txikiagoa izan arren. Eta irla blokeatzen hainbeste energia xahutzen duten auzoko nazio aberatseko egoera aipatu beharrik ez dago...

Osasun sistemak funtzionatu du orain arte. Telebista frantseserako lan egiten duen iparraldeko lagun batek atzo esan zidan ez dizkiotela Kubako albisteak publikatzen



“**Badut bueltatzeko gogoa Ibaizabalen bazterrera. Hegazkinez ez bada, bapozez**”

Frantziako telebista kate horretan. Kubatik albiste txarrak baino ez dituztelako publikatu gura.

Hainbat sare sozialetan iritzi bat nagusitzen hasi da. Esaten dute krisi honek ballioko duela gaur egungo kontsumo ereduaz, ingurumenaz, kapitalismoaz hausnartzeko, eta mundu hobe bat sortuko dela hortik. Ildo horretatik, baikorra ala ezkorra zara?

Baikorra naiz gauzak ikusteko gauza direnekiko, zeren nagusi diren egiturak eta bizimoldeak oker daudela ikusi da berriro, modu oso konkretuan. Seguru batzuek ideia onekin irtengo dutela itxialditik.

Baina ezkorra naiz benetan agintzen dutenekiko. Ez dut uste ideia altruistak hausnartuko dituztenik bakardadean. Trump pistola garbitzen ari da irteeran Txinari tiroka hasteko, western batean lez. Espainiako armadak edo Guardia Zibilak katalanen borondatea errespetatzen irtengo dute itxialditik? Eta erregeak, lapurtu ohi dituzten txanponetatik aparte, barkamena eskatuko du Erdi Arotik hona monarkia burutik behera inposatu digulako ez dakit zenbat milioi pertsonari? Eta bankuak, eta prentsa, eta juezak... Ez dut uste itxialdiak berehalako iritzi aldaketarik ekarriko duenik. Baina desjabetuok, eta motibo batean edo bestean desjabetu ekonomikoak, politikoak edo kulturalak gara gehienok munduan, ikasi beharko dugu noizbait elkartzan. Ez bakoitza bere aldetik, baizik eta eztabaidatuz

eta adostuz, elkartasunez benetako aldaketak planteatzen.

Zein proiektu duzu orain esku artean?

Azkenaldian, egunkari formako liburu bi argitaratu ditut, *Bizitzia ez al da oso arriskutsua?* (2018) eta *Airea ez da debalde* (2019). Hainbat gairen inguruko saiakerak eta inpresioak dira, lengoia ahalik eta adierazkorrena probatuz. Halako hirugarren tomo bat ari naiz orain amaitzen. Ea udarako edo udagoienerako argitaratu daitekeen.

Konfinamendua aldeko ala kontrako duzu idazterako orduan?

Kalean ondo sentitzen naiz, etxean ere bai. Baina idatzi aterpean egin dut beti.

Ez da planak egiteko sasoia, baina posible da hurrengo elkarrizketa aurrez aurre egin ahal izatea?

Badut bueltatzeko gogoa Ibaizabalen bazterrera. Hegazkinez ez bada, bapozez.



Aurrematrikula maiztaren 4tik 22ra

Olaburu 3 - IURRETA
Tel.: 94 428 80 00
www.oroBiogoitiaBHI.hezkuntza.net

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D ereduan

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Guraso, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.



“Birusak izandako bilakaera ikusita, gatz izango da lehiaketara bueltatzea”

Lander Olaetxea abadiñarra futboleko gizonezkoen 2. B mailan dabil jokatzen. Lehiaketak guztiz geldituta, lanera noiz itzuliko den eta zer formatutan izango den jakiteko zain dago. Olaetxea bete-beteko denboraldia osatzen zebilen



Lander Olaetxea
Ibaibarriaga
Logroñes futbol
taldeko jokalaria
Abadiño | 1993

FUTBOLA • IGOR GALARZA

Konfinamenduak sasoi txarrean harrapatu du Lander Olaetxea. Logroñes futbol taldeagaz bere multzoko lider zen 2. B Mailan. Orain, lehiaketara noiz bueltatuko zain dago.

Dena ondo zihoan, birusa agertu zenera arte.

Posizio onean joan gara. Hasieran uste genuen geldialditxo bat besterik ez zela izango, baina, asteak aurrera joan diren heinean, une latz batean gaudela konturatu gara denok. Azkenean, sailkapena beste plano batean geratu da.

Horren ondo aritu eta gero, ez dizue inpotentziarik sorrarazi egoerak?

Ernegua sorrarazi zigun, jakina. Taldea ederto zebilen. Baina ernegu hori baretzen jakin dugu, jakin badakigulako osasuna beste ezeren gainetik dagoela.

Esan dizute konfinamendua amaitzean zelan jarraitu dezakeen lehiaketak?

Egoeraren arabera, eta birusa garatzen doanaren arabera, bide posible bi azaldu dizkigute. Batetik, liga ez amaitzea da ziurrenik gertatuko dena. Nahiko argi ikusten dut hori. Beraz, sailkapenak dauden moduan hartu, eta horren arabera izango lirake igoerak eta jaitsierak. Bestetik, playoffak jokatzea proposatu dute. Kasu horretan, gure mailan dauden multzo bakoitzeko

lehenengo lau sailkatuek Murziara joan beharko genuke. Denok hotel batean elkartu, eta konfinamenduak eman dezakeen malgutasunagaz partidu horiek jokatuko genituzke. Hala ere, gertaeren arabera erabakiko da. Birusaren bilakaera ikusita, gatz izango da lehiaketara bueltatzea.

Jokalarien artean ere berba egingo zenuten. Zer iritzi dute taldekideek horren inguruan?

Jokalari guztiak antzera gaude. Agerian dago egoera ezohikoa dela, eta denok ipini behar dugu gure aletxoak. Ulertzen dugu ezinezkoa dela futboleko jokatzea. Guztion osasunak du lehentasuna, eta hartzen diren erabakiak hartzen di-

rela, hobe dugu etxean geratu eta osasuna zaindu.

Klubak aldi baterako erregulazioa aplikatzea erabaki zuen.

Bai, klubak lehenengotatik jo zuen horretara. Hasieran ez zirudien gaur egun hartu duen tamaina hartu behar zuenik, baina konturatu gara bizi dugun egoerak zelako zailtasunak eragin ditzakeen. Denok ulertu dugu klubaren egoera, eta, alde horretatik, eskutik helduta, norabide berean goaz.

Zer egiten duzu etxean orain arte lortutako formari eusteko?

Klubean plan bat bidali ziguten, forma ahalik eta gutxien galtzeko. Ahalegintzen naiz betetzen, goiz eta arratsaldean errutina bati jarrai-

tuta. Alde batetik, bizikletan edo zintan aritzen naiz, erritmoari dagozkion ariketak eginez. Bestetik, gimnasio ariketa batzuk egiten ditut. Horrez gainera, burua aktibatuta edukitzea ere inportantea da errutina horri eutsi ahal izateko.

Eta lehiaketara bueltatuz gero, zelan ekingo dio taldeak?

Lehiaketara itzuli behar badugu, hiru astean denboraldi-aurre antzeko bat egin behar dugula esan digute. Hasieran, ariketak osasuna ahalik eta gehien zaintzeko izango direla pentsatzen dut. Binaka eta distantzia batera eginez hasi, eta, apurka, jende gehiago eta distantzia motzagoetan lan egiten amaitu.

“**Lehen Mailako talde handi baten aurka jokatzea jai bat izan zen guretzat, eta Errege Kopa izanda, gainera, presiorik barik**”

Zer gertatuko da zure kontratuagaz?

Aurten amaitzen zait, ekainaren 30ean. Dena airean dago, oraingoz. **Denboraldiagaz gustura gelditu zara?**

Bai. Egia esan, gauzak ondo irten zaizkit aurten, eta oso gustura sentitu naiz taldean. Ligari, eta mailari ere, neurria hartu diet, eta denboraldi polita osatzen egon naiz.

Valentziaren aurkako eguna, ahaztezina.

Ez duzu egunero horrelako partidu bat jokatzeke aukerarik izaten. Lehen Mailako talde handi baten aurka jokatzea, eta, gainera, presiorik barik, Errege Kopa izanda, jai bat izan zen guretzat.

Zelan laburtuko zenuke klubean orain arte egindako ibilbidea?

Garapen prozesu bat izan da niretzat. Etxetik ez oso urruti egon arren, aldaketa kulturala dago. Lehenengo urtea izatera kanpoan, hasieran herrira eta taldera moldatzen aritu nintzen, eta hortik aurrera dena garatzen joan da. Taldekideek bide hori erraztu didate. Taldea, orokorrean, hobetzen doa.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

Salmenta telematikoa

ESKAERAK

- e-postaz: info@hitzliburudenda.com
- WhatsApp-ez: 686 214 964
- Telefonoz: 94 681 0776 (8:00etatik 14:00etara)

ORDAINKETA

- Banku-transferentzia bidez.
 - BIZUM bidez.
- Bidalketa gastuak 4,90 € izango dira.
* fardelaren tamainaren eta pisuaren arabera aldaketa izan dezake



ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoootalora.com

Zubiaurte, 8. IURRETA

946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

Botikak

BARIKUA, 1 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 2 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 3 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 4 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 5 - 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 6 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 7 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak



Zorionak, **Oier**, zure bosgarren urtegunean. Muxu handi bat Harotik aitite Valentin eta amama Mari Carmenen partez

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Andere!** Serratuko langileen partez.



Zorionak gure etxeko printzesari, maiatzaren 1ean 9 urte egingo dituzu eta. Jarraitu zaren modukoa izaten, laztana. Patxo gozo bat etxeko guztion partez!



Zorionak, neska handi! Mosu handi bat etxekoon partez. Laster ospatuko dugu gustuko duzun moduan.




Zorionak ama, aita, Haizea eta lau hankadun familiaren partez.

Eskelak



Juan Angel Iturriagaetxebarria



Apirilaren 25a

Familia eta lagunekin azken arnasa hartuta, itzi gaitu gure betiko lagunak. Ez zara erabat joan, betirako gure bihotzean izango zaitugu. Agur, lagun!

Goretti, Espe, Maite eta Idoia

Eguraldia

ZAPATUA 23° / 13°



DOMEKA 28° / 11°



ASTELEHENA 27° / 18°



MARTITZENA 28° / 18°



EGUAZTENA 24° / 15°



EGUENA 24° / 13°



Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsapp-eraz jasotzen?

Batu Anbotoko Whatsapp-era



Bidali ALTA 688 635 041 telefono zenbakira



Ideiak astindu eskuak arindu

ESKULANA TIRAGOMA

Beldurgarri samarra izan liteke tiragoma, egurrezkoa denean eta harriak botatzeko erabiltzen denean. Baina hau kartoizkoa da, paperezko bolak besterik ezin ditu bota, eta dibertigarria da.

MATERIALA:


- Komuneko paperaren erruloa.
- Globo bat.
- Paperezko mahai-zapi erabiliak (ez oso zikinak). Halakorik ez baduzu, beste edozein paper hartu.
- Guraizeak.

Aukeran:

- Kolorezko pape-
rak.
- Kola.
- Errotulagailuak.



1. Hauxe duzu oinarritzko materiala. Besterik ez zenuke behar, tiragoma dibertigarri bat egiteko.



2. Hartu globoa eta moztu iezaiozu ipurdia.
3. Egin korapiloa muturrari.
4. Jar iezaiozu globoa, komuneko paperaren erruloari. Ahalik eta barruen sartu, muturretik tira egitean aska ez dadin. Paperezko mahai-zapiari zati batzuk puskatu eta bolatan biribildu. Prest duzu tiragoma!

5. Aizu, baina erruloa zure marrazkiz apainduta, askoz hobeto, ezta? Orain bai! Sartu bola bat erruloan, tira gomari eta askatu! Ea nork urrunago!





Tokiko hedabidea Tokiko dendetan

Krisi sasoi honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da informazio zuzena izatea. **ANBOTO**ko webgunean etenbako jarraipena egiten ari gara (anboto.org). Larrialdi egoera honetan paperean ere informazio kontrastatu eta fidagarria argitaratzen jarraituko dugu banaketa puntu hauetan:

ANBOTOren banaketa puntuak:

ABADIÑO / MATIENA

SOLOKOA (Goretti
janari denda) (Zelaieta)

ARRIAUNDI
OKINDEGIA
(Muntsaratz)

GOZOKARS
(Muntsaratz)

PETITE PRENTSA
DENDA (Matiena)

ATXONDO

KIOSKOA

BERRIZ

ETXEBARRIA
ESTANKOA

EGUN ON OKINDEGIA

DURANGO

ETXEBARRIA
PRENTSA DENDA

IKERFER PRENTSA
DENDA

OPEN SHOP
(Askatasun etorbidean)

BIZKARRA
OKINDEGIA
(Alluitz kalean)

KIOSKO PRENTSA
DOMINGUEZ
(Komentukalea)

GOZATU OKINDEGIA
(Ermodo 11)

EGUN ON FRUTA
DENDA
(San Ignazio auzunea 3)

ALBERDI
OKINDEGIA
(Zeharmendieta 7,
San Fausto)

ELORRIO

ILLARGI PRENTSA
DENDA

ROSARIO CEA
FRUTA DENDA

MATZORRI
OKINDEGIA

IURRETA

URKI PRENTSA
DENDA

MALLABIA

FARMAZIA

MAÑARIA

BIZKARRA
HARATEGIA

OTXANDIO

KOROSTONDO
JANARI DENDA

ZALDIBAR

IMENDIA

ZORNOTZA

BILLIKEN LIBURU
DENDA

AYERDI PRENTSA
DENDA

BIZKARRA
OKINDEGIA (Gudari
kalean)

BIZKARRA
OKINDEGIA
(Jauregizahar kalean)

ANBOTOgaz informazioren bat partekatu gura baduzu:

✉ astekaria@anboto.org ☎ 688 63 50 41

“Euskaraldia bizirik dagoela ikusi da”

Apirilaren 24an eman zioten hasiera Etxealditik Euskaraldira dinamikari, eta gaur bigarren fasea amaituko dute. Azken ekintza domekan egingo dute, maiatzaren 3an



IURRETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko amaitzen ari da apirilaren 24an hasi zen Etxeladitik Euskaraldira dinamika. ANBOTOK Rita Aldabaldetrek Euskaraldiko koordinatzaile orokorragaz berba egin du.

Etxealditik Euskaraldira ekimenaren amaiera fasera heltzear gaude. Zelaiko erantzuna izan du?

Balorazio formal bat egiteko oraindik goiz den arren, harrিতa gaude ekimenak izan duen erantzun positiboarekin. Harritu egin gaitu herritarren partetik ekimenak izan duen erantzun onak, eta baita ere herri batzordeek zer ondo ekarri duten ekimena euren herrietara. Herri batzordeei ardura handia

eman genien; koordinazio batzorde orokorrek batera proposamenak zabaltzeko eskatu genien, azken batean eurek dutelako harreman zuzena herritarrekin. Oso gustura gaude herri batzordeek egin duten lanarekin. Askok pilula bakoitza hartu eta bere egin dute, eta gauza horiek bizia ematen diote ekimenari.

Horrez gainera, konturatu gara antolakuntza aldetik momentu batzuetan egoera zailak bizitzen ari garela eta herri batzorde batzuk lanari ekiteko zailtasunak dituztela. Beraz, ekimen hau modu ona izan da harremanak berriro heltzeko, eta aktibatuta ez zeuden askorentzat aitzakia polita izan da Euska-

“

Egiteko moduak aldatu beharko ditugu, baina gure burutik ez da pasatzen Euskaraldia ez egitea”

—

raldiaren antolaketan hasteko, berdin entitateekin. Gainera, ikusi da gaia berriro aterata presentzia bat izan dugula komunikabide eta sare sozialetan. Horrek berriro gaia mahai gainean ipintzen lagundu du. Orokorrean, Euskaraldia bizirik dagoela ikusi da.

Domekan emango diozue amaiera ekimenari. Zer prestatu duzue?

Ekimenari hizkuntza ohituren erradiografia bat eginez eman genion hasiera, eta ordutik hona hainbat jarduera eta praktika landu ditugu. Beraz, pentsatu dugu amaiera emateko modu ona izan daitekeela gertatu den hori jasotzea. Orduan, norberak bere hausnarketa propioa egitea eskatuko dugu, eta bakoitzak nahi duen moduan (marrazkiekin, bertsoekin...) bizipen horiek jaso beharko ditu. Ondoren, maiatzaren 3an sare sozialetan ipintzeko eskatuko diegu.

Azaroan hastekoa den Euskaraldiari indarra eman dio ekimenak?

Bai, eta helburua, alde batetik, bazen gaia berriro indarrez hartzea eta beroketa ariketa moduan erabiltzea. Baina, beste alde batetik, uste dugu ekimenak erakutsi duela Euskaraldiak baduela tonu edo itxaropen mezu bat, eta hori ikusi da bai herritarrengandik eta baita herri batzordeengandik jasotzen ari garen mezuetan. Orain arte, bagekin Euskaraldian Ahobizi eta Belarripresten artean konplizitateak sortzen zirela, eta orain ikusi dugu Euskaraldiak etxera ere ekartzen dituela sentimendu horiek.

Etxean bertan eragin gura izan duzue. Lekurik zailena da?

Kasuan kasu, lekurik zailena edo lekurik errazena izan daiteke. Errazena izan daiteke etxean egon daitekeelako konfiantza hori hizkuntza ohiturei buruz hitz egiteko, akatsak egiteko, lasai sentitzeko prozesu horretan... Azken batean, denok dakigu hizkuntza ohiturak aldatzea ez dela beti prozesu erraza. Beste kasu batzuetan, berriz, ikusten dugu hizkuntza ohiturak erroturik ditugun guneak direla. Orduan, zailenak dira aldatzeko.

Egoerak horrela behartuta, ekintza guztiak bertan behera gelditzen ari diren sasoi honetan zelan ikusten duzue udazkeneko Euskaraldia?

Nahiz eta 15 eguneko ariketa izan, bi urte pasatzen ditugu Euskaraldia antolatzen, eta egia da antolaketan eragina izango duela. Egiteko moduak aldatu beharko ditugu, baina gure burutik ez da pasatzen Euskaraldia ez egitea. Uda ostean, Belarriprest eta Ahobiziei begira jarriko gara, azken batean Euskaraldiaren oinarria norbanakoak dira eta.

Lauhortza

Markel Sanchez Zelaia
Behargina



GOAZENHARA

Europako herri aurreratuene-tako bat gara. Hemen ez dugu osasungintza publikoa eta kalitatezkoa aldarrikatzen, hemen jendeari umeen minbizia ikertzeko dirua ipini dezan eskatzen diogu poz-pozik, lau teiltatu gainean. Hemen ez gara etxean geratzen, lanera goaz. Hemen amama Lutxi maite dugu, baina ekonomia gehiago. Sentitzen dut, amama, ekonomia da, ziur ulertuko duzula, aurreratuak gara. Pentsa zein aurreratuak garen, agian apurka-apurka birusa elkarri kutsatzen hasiko garela, horrela kalera irten ahalko garelako immune gaudenok, herrialde atzeratuak txertoaren zain dauden bitartean. Ez gara atzean geratuko. Ekonomia ez dago geldi. Hemen kafeari Baque soziala esaten diogu. Hemen enpresariak dirua irabazten jarraitzeari ekonomia deitzen diogu.

Han Europako herri aurreratuena gara. Han ez da baimentzen osasunarekin negozioa egitea, eta umeei *Lau Teiltatu* abesten dute osatzen direnean. Han etxean gelditu ginen birusaren hasiera-hasieratik, aurreratuak garelako, zientzialariei egin genielako jaramon eta ez dirua irabazi gura duen jendeari. Han amama Lutxi maite dugu, eta zaintza sare publikoak ditugu. Han enpresak publikatu egin ditugu, diru irabaziak egoera berezi honi aurre egiteko erabili daitezten, eta produkzioari buruzko erabakiak inoren presio barik hartzen ditugu orain. Han jendearen beharrezana asetzeari deitzen diogu ekonomia. Hara ailegatzean ontziak erre genituen, eta ordutik ez da injustizia onartzen, eta horretan, soilik horretan, Jaungoiko Aita baino sektarioagoak gara.

iragarki laburrak .eus

Hemen eta online

iragarki laburrak .eus